

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Bertsoaren kate motzean

Pertsona batzuek ezer gutxi dakigu, baina, dakigunarekin, haiei buruzko irudi osatu samarrak egiteko joera dugu. Edo, hobeto esanda, norbaiti buruz dakigunak hari buruzko kontu intimoagoak edo ezkutua- goak iradoki ohi dizkigu. Bakarra al naiz, akaso, trenean jendeari begiratu eta haien itxura hu- tsean oinarrituta euskaraz nork egiten duen eta nork ez asmatzen aritu dena? Ezertaz ezagutzen ez dudana bizkaitar bati Twitterren txio bat irakurri eta haren konbikzio politiko-etikoak goitik behera ezagutzen di- tudala uste izan duena? Ez dugu asko jakin behar bes- teezen dena dakigun irudipena izateko.

Joan diren asteetan, nire inguruko eta ez horren in- guruko batzuek niri buruz emantzat jo duten datu bat ezagutu dut. Nitaz dakitenetik abiatuta ondorioztatu dutena, gehiegi erratuko ziren beldur izan gabe. Agida- nean, bertsozale tankera eman didate. Txapelketa nagusiak iraun duen ga- raian, batek baino gehiagok galdetu dit ia zer iruditu zi- tzaidan halako edo halako saioa edo honen edo bes- tearen kantaldia. Ezagun batek, abenduaren hasiera aldera, «ia Iruñean topo egi- ten dugun» esanaz agurtu ninduen emailan; eta, ni, buruari hazka, Iruñean bile- ra, bazkari, kontzertu edo manifarik laster ote nuen ezin gogoratu.

Ez naiz bertsozalea. Ez zaizkit bertsolaritzak eskutik ekarri ohi dituen alderdi batzuk gehiegi gustatzen. Ho- riek ez ditut gaurko kontu, ordea. Izan ere, badu ber- tsogintzak interesa pizten didan gauza bat, ulertu nahi dudana, eta horregatik entzuten ditut pozik, tartean behin, bertso-sorta batzuk, eta miresten ditut horiek kantatzeko abilezia dutenak. Badu bertsoak zerbait oso eder iruditzen zaidana.

Bertsoak ba omen du performatibotik, estetikotik, gorputzetik eta poetikotik zerbait; baina, bertsoa, zer- bait bada, hizkuntzaren erabilera da, ekintza komuni- katiboa bere soilean. Bertsolariak, hiztun denez, hiz- kuntza bati dagozkion hitz eta esamoldeak josten ditu,

horren bidez entzuleari zerbait adierazteko. Hizkuntza orok arau zehatzak ezartzen dizkio hiztunari, eta hi- tzeekin zer eta nola egin dezakeen mugatzen dio. Ber- tsotan ari denean, hiztunak arau eta muga are zorro- tzagoak ezartzen dizkio bere buruari: adierazi nahi duzun hori adierazi, baina errimeiz eutsiz, errepikak zainduz eta hitz-silabak neurtuz.

Hizkuntzarekin egindako ariketa polita iruditzen zait hori. Hitzen esanahi soilaren bidez literalki eta zu- zenean adieraz daitekeena minimoetara murriztu, eta soiltasun horretatik ahalik eta mezurik aberats, ñabar- tu, argi eta osoena helarazi entzuleei. Gutxi esan, asko adierazteko.

Hizkuntzaren erabilerak berebiziko garrantzia du jo- las horretan. Bertsolariari lagunduko dio, erronka ho- rretan, hizkuntza figuratiboa erabiltzeak: metaforak, ironia, hiperboleak, meiosisak. Hizkuntzaren erabilera

Bertsoak ba omen du performatibotik, estetikotik, gorputzetik eta poetikotik zerbait; baina, bertsoa, zerbait bada, hizkuntzaren erabilera da, ekintza komunikatiboa bere soilean

ez-literal horiekin, esan, ez da benetan asko esaten, baina gauza asko iradokitzen dira. Iradokitzen dena zehaztugabe samarra izan ohi da, eta entzuleak behar izaten du testuinguruko informazioa eta hiztunarekin partekaturiko ezagutza, iradoki zaion horri forma eman eta hobeto zehazteko.

Gisa honetako ekitaldi jendetsuetan, bat denei ari zaienean, ez dago testuinguru intimoentzat leku han- dirik, ordea. Horregatik, bertsolariak tiratu beharko du denok-edo partekatzen ditugun irudi eta ideietatik, eta baliatu beharko ditu estereotipoak eta gauza jakinak.

Edo izan beharko du oso abila, askotariko askori zer- bait zehatza eta fina adierazteko; esan, esan gabe, bai- na adierazi nahi duenaz zalantzarik utzi gabe. •